

BILBO. Astialdi taldeak sustatu gura ditue

Areatzan aurkeztu eben, atzo, Gaztedi Kontseiluak bultzatutako Astialdi Foroa

Erredakzinoa |

Bizkaiko astialdiko eskolak, taldeak eta alkarteak uriburu-ruko Areatzan bildu ziran atzo, herritarrei, jai giroan, egiten daben beharraren barri emoteko. Hezitzaileak eta lagunak goizean goiz alkartu ziran, eta kalejira zaratatsu baten laguntzeaz, hasi eben arratsékera arte luzatuko zan jardunaldia.

Areatzan bildu ziranek, eguerdian izan eben ekitaldirik garrantzitsuena. Orduan aurkeztu eben Astialdi Foroa izeneko ekimena.

Euskadiko Gaztediaren Kontseiluak koordinetan dauen ekimen horrek asmo

zehatzak ditu, aurkezpen ekitaldian aitortu ebenez. Errealidade barri erantzun gura deusie, estrategiak adostu gura ditue, eta gizar-tean ondo errotutako alkar-teen sare sendoa osotu gura dabe.

Forokoek, ganera, astialdiaren inguruko taldeak sustatu gura ditue, eta talde horreek guztiak koordinatu eta hartu-emonetan ipinteko gunea sortu gura dabe.

«Bizkaiko astialdi arloko alkar-teen mogimentua sendotu gura dogu, gaztetxoak balioen inguruan hezi, eta gizar-tearen aldaketea lantzeko», azaldu eben ekimenaren antolatzaileek.

MUSKIZ. Pailazoakaz hasiko dira bihar

Euskerearen aldeko asteen, hizkuntzeak mugarik ez daukala nabarmenduko dabe

Erredakzinoa. |

Muskizko Udalaren Euskera Batzordeak hizkuntzearen aldeko astea prestatu dau udalerriko hainbat alkarte eta taldeen laguntzeagaz. Bihar goizean hasiko da, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen frontoian eskainiko daben ekitaldiagaz (10:00).

Arratsaldean, barriz, antzerkia izango da Kultur Etxean. Hika taldeak *Arrautza delikatuak* izeneko obrea eskainiko dau. Domeka bitartean, hainbat ekitaldi

izango dira, goiz eta arratsalde, herriko euskaldunek euren hizkuntzan «muga barik» disfrutau leikiela ikusteko.

Antzerkia, musikea, kirola eta euskal musika tresnen ganeke emonaldiak izango dira, besteak beste, Muskizen, aste honetan. Bertso afaria be izango da, bari-kuan, Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariakaz.

Muga bako ekimenagaz amaitzeko, mendi martxea antolatu dabe Euskerea Batzordekoek. Zahar eta gazteak deitu ditue parte hartzera.



JOSU ETXEBARRIOSTE

SALMENTAK. Erostera baino gehiago, kotxeak ikustera joaten dira gehienak Automobilaren Azokara.

Gurpil ganean

BILBOKO III. AUTOMOBIL AZOKEA. Nazinoarteko Erakustazokeak antolatuta, zemendiaren 25era arte egongo da zabalik erakusketea

Kepa Ugarte | **BILBO**

Barikuan inauguratu eban Iñaki Azkuna Bilboko alkateak automobil azokea. Zemendiaren 16a eta 25a artean, Bilboko Nazinoarteko Erakustazokara batzen diranek hamazortzi markatako automobilak ikusi ahal izango dabez. Horrezaz ganera, gurpil ganeke txapelak handien ibilgailuak, trialeko motorrez, gurpil-handiez eta autoez egindako akrobazien erakustaldiak, scalextric-a eta bideo jokoak egongo dira bertan.

Borja Ruiz Skoda auto-etxe-ko salmenta arduradunak adierazo ebanez, marka baktzeko kotxeak ezagutzera emoteko balio dau azokeak. «Gehienbat, jentea kotxeak ikustera etortzen da, oso gitxi erosten dabe», aitatu eban Ruizek. Izan be, publizitatea egiteko aukera paregabea emoten dau Bilboko Automobil Azokeak. Jose Ramon Fernandez Opel markako erakustokiko arduradunak, barriz, «kotxea erostea lehenagotik pentsautu eukien batzuk azokan eskaintzen diren promozioen bila» joaten dirala generatu eban.

Automobilekin zer ikusi handia daukan beste sektore batek badauka bere txokoa azoka honetan. Izan be, Mapfre aseguru

ERAKUSTALDIAK

Trialeko motorren, gurpil-handien eta autoen akrobazien erakustaldiak ikusteko aukerea egongo da erakustazokan

ZOKKETAK

Scooter motorra eta Clio (Renault) kotxea zozketatuko ditue antolatzaileek azokara joandako guztien artean

etxeak kotxeen aseguruari buruzko informazioa emoteko erakustokia ipini dau bertan. Horrezaz ganera, bideko segurtasun-arauak ikasteko eskolak emoten deusie bertara batzen diran txikiei. Ganera, horreek praktiketako karting zirkuitoa ipini dabe erakustazokan. Juan Carlos Salgado komertzialaren berbetan, «Diru gitxi kobratu eze, arazoen aurrean erantzuten dakian konpainia be gura dau jenteeak».

Jende ugari batu da, egunotan, Mapfre konpainiako erakustokira, aseguruari buruzko informazioa eskatzeko. Gane-

ra, zozketea antolatu dabe azken egunerako.

Baina automobilak ikusteko eze antolatu dabezan erakustaldiekaz gozatzeko be joan ziran atzo gehienak azokara. Duda barik, Alex Crivillek Munduko Txapelketan erabilitako Honda NSR-500 motorrak sortu eban jakinminik handiena. Dana dala, trialeko motorrakaz, gurpil-handiakaz eta automobilakaz egindako akrobaziak bertan batutakoen txalo zaparrada jaso eben atzo.

Eguerdiko 12:30ean hasita, akrobaziak egin zituen Ibon Zorrillak eta Gonzalo Zabalak euren motorren ganean, antolatzaileek ipini daben trial zirkuitoan. Ordu erdi beranduago arrapaladan joan ziran danak gurpil-handiak ikustera. Hollywood Motor Show-ekoek gurpil ganean trebeak dirala erakusteko aukerea euki eben. Gurpil biren ganean jarri zituen kotxeak han batutakoen txaloen artean. Hurrengo egunetan be, ekitaldi ugari antolatu ditue Erakustazokako arduradunek.

Horrezaz ganera, zozketa bi egingo ditue antolatzaileek hamar egun honeetan azokara batzen diran lagun guztien artean. Scooter motorra eta Renault Clio Blue Dream automobila irabazteko aukerea eukiko dabe lagun bik, hurrenez hurren.

1. Z. ko Admin. BILBO

ORMAETXEA

Loteria

Aurrenekoa izateko, onena izan beharra dago... sari handienak ematen lazko Gabonetan HIRUGARREN SARIA egokitu zitzaizun. Aurten Gabonetako Sari Nagusiak berriz ere zoriontsu egin gaitzake.

100 SARI NAGUSI BAINO GEHIAGO SALDU DITUGU HEMEN

Urkijo zumardia, 52. Indautxu plaza. (Metroko sarrera)

Tfno : 94 44 12095. www.loterias.com